

IRAKASKUNTZA-GIDA

2012/13

Ikastegia

160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25948 - Justizia Administrazioa eta Gizarte Langintza

ECTS kredituak: 6

GAITASUNAK / AZALPENAK / HELBURUAK

IRAKASGAIAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

HELBURU OROKORRA.

Irakasgaiaren helburu nagusia, Justizia Administrazioarako sarrera bat egitea da, Gizarte Langile izan behar duten ikasleei egokitua. Horregatik lehenik eta behin zuzenbide penalaren gaineko lehenengo hurbilketa funtsezkoa eta orotarikoa mamitzeari ekingo zaio. Zuzenbide penalen eduki funtsezkoa geureganatzea ez da lan tekniko eta aseptiko bezala planteatuko. Ikuspegi kritikoa abiapuntua izango da, bai delituaren bai zigorraren teoriak eta horien balorazioa aztertzerakoan.

Horregatik delitu zein zigorren arau orokorrak eta delitu multzo jakin batzuk jorratzearekin batera, presondegiaren esparrurako lehenengo sarrera ere egingo dugu, zigor batzuen (presoaldiaren) azkeneko fasea den neurrian, baina, baita ere esku-hartze penalaren osoko irudia ematen digulako, sistema penalaria buruzko balorazio egokiei ekiteko ezinbestekoa dena.

Ikasturtean zehar, bai eduki teorikoen bai kasu praktikoen bitartez prozedura penaleko ideia nagusiak ere ikusgai izango dira. Horrek guztiak Justizia Administrazioaren ikuspegi orokorra emango digu.

HELBURU ZEHATZAGOAK.

Ikasturtearen bukaeran ikaslea gai izan beharko da, zuzenbide penaleko benetako kasu baten aurrean bere burua orientatzeko: alegia, delitu garrantzitsu batzuen kalifikazio juridikoa egiten jakiteko; baita zigorraren eta bestelako ondorio juridiko-penalaren zehaztapena egiteko ere.

Aldi berean, lege penalak ulertu eta aplikatzeaz gain, errealitate juridiko-penala baloratzeko gaitasun kritikoa barneratu beharko da, diren lege penaletan alderdi positiboez, negatiboez eta horiekiko alternatibaz jakitun izanik.

METODOLOGÍA

Egitaraua lantzeko lehenengo tresna klase teorikoa dugu, beti ere sortzen diren arazoak eztabaidatzeko leku zabala izan behar duena, ikasle eta irakaslearen arteko eztabaidagunea alegia.

Klase praktikoen bitartez, klase teorikoetan aurkeztutako kontzeptu nagusiak haien benetako ingurunean nola funtzionatzen duten ikusteko aukera izango dugu, batez ere delituaren kalifikazio juridikoa eta zigorraren zehaztapena egiteko. Horretarako nagusiki benetako epaietatik ateratako kasuak jorratuko dira.

Egitarauaren 3. eta 4. IKASGAIEen eduki gehienak klase praktikokoetan besterik ez dira jorratuko. Gainontzeko ikasgaietatik alderdi batzuk ere klase praktikokoetan txertaturik ikasiko dira.

Ez dira delitu guztiak aztergai izango eta horregatik gizarte-lanaren eguneroko jarduerekin lotura zuzenekoagoa duten portaera deliktiboak egitarauaren erdigunean izango dira: hala nola, lesioak, mehatxuak, sexu-askatasunaren aurkakoak, ondare delitu batzuk (ebasketa, lapurreta...) edota droga-trafikoaren ingurukoak.

GAI ZERRENDA

EGITARAUA

LEHENENGO ATALA:

SARRERA, ZATI OROKORRA ETA PRESONDEGI-SISTEMA

1 IRAKASGAIA ZUZENBIDE PENALAREN SARRERA

1.0. Justizia-Administrazioa eta zuzenbide penala. 1.1. Zuzenbide penala gizarte-kontrolerako tresna gisa. Ezaugarriak. 1.2. Zuzenbide penalaren lehenengo definizioa (¿objektiboa¿) eta elementuak. 1.3. Zuzenbide penala "sistema penala"ren baitan. 1.4. Legeria penala. 1.5. Zuzenbide penalaren funtzioa eta printzipioak Estatu sozial, demokratiko eta zuzenbidezkoan: legezkotasun printzipioa, esku-hartze penalaren onurazko printzipioa, subsidiarioritasun eta ultima ratio printzipioak, ondasun juridikoen babes eskusiboaren printzipioa, zigorren gizatasun printzipioa, erruduntasun printzipioa, proportzionaltasun printzipioa eta birgisarteratze printzipioa.

2 IRAKASGAIA ZUZENBIDE PENALAREN ZATI OROKORRA (I): DELITUAREN TEORIA

2.1. Delituaren definizioa dogmatikoa. 2.2. Portaera eta portaera baztertzen duten kausak. 2.3. Tipikotasuna: dolozko tipoa, zuhurtziagakeria eta ez-egitea. 2.4. Zuzenbidekontrakotasuna eta bidezkotze-kausak: legebidezko defentsa, beharrian egoera, eginbehar baten betetzea eta eskubide baten bidezko egikaritzea. 2.5. Errunduntasuna edo egozpen pertsonala. Errunduntasuna baztertzen duten kausak: aldakuntza psikikoa, buru-nahaste iragankorra, toxikazio osoa, aldakuntza oharmenean, adingabetasuna, debeku errakuntza eta beldur menperaezina. 2.6. Zigorgarritasuna. 2.7. Delituaren garapen-gradua: burutzea, saiakuntza eta prestamen-ekintzak. 2.8. Egiletza eta partaidetza. 2.9. Delituaren inguruabar aldarazleak: aringarriak eta astungarriak. 2.10. Lege-pilaketa eta delitu-pilaketa.

3 IRAKASGAIA ZUZENBIDE PENALAREN ZATI OROKORRA (II): ZIGORRAK ETA BESTE ONDORIO JURIDIKOAK

3.1. Zigor Kodean dagoen zigor-sistema eta joera politiko-kriminalak: hasierako hausnarketa. 3.2. Pena askatasun-gabetzaileak: espetxealdia, lokalizazio iraunkorra eta isuna ez ordaintzeagatiko erantzukizun pertsonal subsidiarioa. 3.3. Zigor askatasun-gabetzaileak etetea eta ordeztea. 3.4. Isuna. 3.5. Gizartearen aldeko lanak. 3.6. Eskubideaz gabetzen duten beste zigorrak. 3.7. Zigorrak zehazteko arauak. 3.8. Segurtasun-neurriak. 3.9. Ondorio erantsiak. 3.10. Adingabeen kasuetan ezarri beharreko neurriak. 3.11. Erantzukizun zibila. 3.12. Erantzukizun kriminala azkentzea eta delitu-aurrekariak.

4. IRAKASGAIA ESPETXEALDIAREN BETEARAZPENA: PRESONDEGI SISTEMA

4.1. Espetxealdiaren sorrera eta bilakaera historikoa. 4.2. Espainiako presondegi-sistema (indibidualizazio zientifikoa) eta horren printzipio nagusiak (birgisarteratzea eta legezketasun-printzipioa). 4.3. Presondegi-sistemaren inguruko erakunderik garrantzitsuenetariko batzuk: tratamendua (sailkapena), lana, disziplina erregimena, baimenak, komunikazioak, bisitak, hezkuntza, etab. 4.4. Presondegietako jardueraren kontrola: zaintza-epailea.

BIGARREN ATALA: ZATI BEREZIA

5 IRAKASGAIA: ZUZENBIDE PENALAREN ZATI BEREZIA (I)

5.1. Giza hilketa. 5.2. Erailketa: maltzurkeria, prezioa eta ankerkeria. 5.3. Lesioak. 5.4. Etxeko indarkeriaren hausnarketa berezia. 5.3. Familia-harremanen aurkako zenbait delitu.

6 IRAKASGAIA: ZUZENBIDE PENALAREN ZATI BEREZIA (II)

6.1. Askatasunaren aurkako delituak (I): mehatxuak eta derrigortzeak. 6.2. Askatasunaren aurkako delituak (II): derrigortzeak. 6.3. Sexu-askatasunaren aurkako delituak. 6.3.1. Sexu-erasoak. 6.3.2. Sexu-abusuak. 6.3.3. Sexu-jazarpena. 6.3.4. Erakuts-zalekeria eta sexu-zirikatzeko delituak. 6.3.5. Prostituzioaren inguruko delituak. 6.3.6. Galbideratze-delitua..

7 IRAKASGAIA: ZUZENBIDE PENALAREN ZATI BEREZIA (III)

7.1. Ondare-delituak: ebasketa, lapurreta, estortsioa, ibilgailuak erabiltzeko lapurreta eta ebasketa, usurpazioa, iruzurra, bidegabeko jabetzapena eta kalte-delituak. 7.2. Droga-trafikoa.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda:

M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

Argibideak:

EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Banakako lanak

- Taldeko lanak

Argibideak:

EBALUAZIOA

Azterketa idatzizkoa izango da.

Nahi duenarentzat, ordea, jarraikako ebaluazioaren filosofian oinarritutako sistema osagarria eskaintzen da: alegia, ¿ sei kasu praktikoen gaineko txostena idatziz aurkezten duenak (horietako bat klase praktikoko batean ahoz aurkeztu beharko duelarik)

¿ eta klase praktikoko guztietara joateko bai eta modu aktiboan parte hartzeko konpromesuari ere eusten dionak, azkeneko kalifikazioaren hamar puntutatik bat eta lau puntu artean eskuratzeko aukera izango du (azterketa teorikoaren kalifikaziora zuzenean gehituko direnak).

Borondatezko sistema honetan parte hartzeko zerrenda ikasturtearen lehenengo astetan osatuko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Zigor Kodea, eguneratua.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

OINARRIZKO MATERIALAK

¿ LANDA GOROSTIZA, J-M., Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak (Zati Orokorra eta Zati Berezia), Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2003 (225 orr.) [Euskal Herriko Unibertsitatearen Web orriaren bitartez eskuragarri].

¿ LANDA, J-M./LOBERA, A./SAINZ DE ROZAS, R./URRUTIA, A./URRUTIA, E., Zigor kodea. Código Penal, Deustuko Unibertsitatea/IVAP-HAEE, Bilbo, 2. argitaldia, 2004.

¿ MUÑOZ CONDE/GARCIA ARAN, Derecho penal. Parte general, Valentzia, 2010.

¿ DIEZ RIPOLLÉS, Derecho penal español Parte General en esquemas, Valentzia, 2007.

¿ GARCIA-PABLOS, Derecho penal. Introducción, Madril, 2002.

¿ GARCIA-PABLOS, Tratado de Criminología, Valentzia, 1999.

¿ GRACIA MARTIN, et alter, Lecciones de consecuencias jurídicas del delito, Valentzia, 2004.

¿ LANDA GOROSTIZA, ¿1995.eko Kode Penal berriaren balorazio orokorra¿, ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria), 1996, O zenbakia., 75-89 orr.

¿ LANDA GOROSTIZA, ¿Adingabea zuzenbide penalaren aurrean: 5/2000 Lege Organikoarekiko hurbilketa kritikoa¿, ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria), 2002, 9 zenbakia., 25-39 orr.

¿ LANDA GOROSTIZA, ¿Unibertsitatearen zeregina legegintza euskaldunear: zuzenbide penaletik egindako hausnarketa¿ Eleaniztasuna eta teknika legegilea. Plurilingüismo y técnica legislativa, Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco argitaratzailea, Vitoria-Gasteiz, 2001, 237-246; baita ere ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria), 2001, 8 zenbakia., 93-98 orr.

¿ MAPELLI CAFFARENA, Las consecuencias jurídicas del delito, Madril, 2011.

¿ MIR PUIG, Derecho penal. Parte general, Bartzelona, 2008.

¿ ORTS BERENGUER, et alter, Compendio de Derecho penal Parte General, Valentzia, 2008.

¿ QUINTERO, et alter, Comentarios al Código penal. Tomos I, II y III, Iruñea, 2008.

¿ TAMARIT SUMALLA, et alter, Curso de Derecho penitenciario, Bartzelona, 2005.

¿ ZUGALDIA ESPINAR, Fundamentos de Derecho penal. Parte general. Las teorías de la pena y de la ley penal, Valentzia, 1993.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria)

Interneteko helbide interesgarriak

<http://testubiltegia.ehu.es/>